



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO IRAILAREN 29AN  
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Lur Etxeberria Gurrutxaga.

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

**Ez dira bertaratu:** Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2020/09/08KO OHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2020ko irailaren 8ko ohiko bilkularako akta aho batez onartu dute.

**2.- QUISER SL ENPRESAK ZUMARTEGI INDUSTRIALDEKO ERREKALDE KALEA 9AN  
EZARRI NAHI DUEN HIGIENE ETA GARBITASUN PRODUKTUEN BILTEGI  
JARDUERARI ALDEKO INFORMEA EMATEA.**

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, QUISER SL enpresak Zumartegi industrialdeko Errekalde kalea 9an ezarri nahi duen higiene eta garbitasun produktuen biltegiaren osasun-txostena helarazi du. Osasun-txostena ALDEKOA da.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2018-0434

ESKATZAILEA: QUISER, S.L.

JARDUERA MOTA: Higiene eta garbitasun produktuen biltegia

NON KOKATUA: Errekalde kalea 9 / Zumartegi industrialdea

Aurkeztutako proiektua aztertu ostean, udal arkitektoak, Miren Dorleta Erausquin Alijostes andereak, ondoko txostena eman du:

**BULEGO TEKNIKOA**

**Udal Teknikariak Alkate jaunari**

**JARDUERA SAILKATUAK**


**ZUMARTEGI INDUSTRIALDEKO ERREKALDE KALEA 9AN HIGIENE ETA  
GARBITASUN MATERIALEN BILTEGIA EZARTZEKO JARDUERA  
PROIEKTUARI HIRIGINTZA TXOSTENA**

---

ESKATZAILEA: QUISER S.L. enpresa.

ESKAERA: Zumartegi industrialdeko Errekalde kalea 9an higiene eta garbitasun materialen biltegia ezartzeko jarduera

KOKAPENA: Errekalde kalea 9 (ZUMARTEGI)



Usurbilgo Udala

## **ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.07/2018-0434 JARDUERA SAILKATUA**

### **AURREKARIAK**

- 2018ko abuztuaren 28an QUISER S.L.-ren izenean Zumartegi industrialdeko Errekalde kalea 9an higiene eta garbitasun materialen biltegi bat ezartzeko Jarduera Proiektua aurkeztu da dagokion baimena eskatuz.

### **TXOSTENA**

QUISER S.L. enpresaren izenean Usurbilgo Zumartegi industrialdean, Errekalde kalea 9an, higiene eta garbitasun materialen biltegi bat ezartzeko Jarduera baimena eskatu da, Jarduera Proiektua aurkeztearekin batera. Aurkeztu den dokumentazioa da: eskaera orria eta Jarduera Proiektua (goi mailako ingeniarioak izenpetua eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus- onetsia 2018-abuztuak 22 180759); proiektuak barneratzen ditu: memoria eta planuak,

Txosten honen helburua da ezarri nahi den jarduera hirigintza arauen arabera kokapen horretan ematerik badagoen aztertzea. Zumartegi industrialdea Usurbilgo Arau Subsidiarioen arabera hiri lurzoruan kokatzen da, A-30 Zumartegi Eremuan, industrial kalifikazioa izanik.

Proiektuan zehazten denaren arabera, bertan ezarri nahi den jarduera da;

*“2. OBJETO DE LA ACTIVIDAD:*

*...*

*QUISER S.L. se dedica a almacenar productos de higiene y limpieza (sin venta al publico)”*

- ERABILERA HIRIGINTZA IKUSPEGITIK; A-30 Zumartegi Eremuan indarrean dagoen hirigintza fitxak, erabilerearen inguruan zehazten du;

*“3.- ERABILERAK; Egungo erabilerak finkatzen dira, nagusia industrialia izanik, Atxega jauregiarena ezik. Eta ez da inolako jarduketarik onartuko leku itxietatik kanpo. Atxega jauregiaren erabilera merkatal-ostalaritzakoa izango da.*

*Erabilera berriei dagokienez, araudi orokorraren 4,2 atala izango da aplikagarri.”*

*“Araudi orokorraren 4.2 atala: Industri eraikuntza*

*38. artikulua. Arautegi honetako ondorioetarako, industri erabileratzat honakoa hartzen da, hots: eraldatutako lehengaien erdieste, berraldatze, biltze edo eta gordetze jarduetarako den lurzorua edo eta bertan burututako eraikuntzak.*

*Jarduera etxalde isolatuan kokatzen da egoitza nahiz hornikuntza erabilerarik gabeen, eta egoitza eskualde gertukoaren mugatik 50 metro baino gehiagoko distantzian. Bertan industria gogaikarriak ipini daitezke, laugarren kategorian sartutakoak”.*

**Beraz, eman nahi den erabilera onargarria da kokapen horretan, eraikuntza egikaritzeko aurrez jaso beharko den obra baimenen**



Usurbilgo Udala

**kalterik gabe.**

*“5.- LURRAREN JABETZA; 30.1 HEUean eraikuntza baldintzak 40.1 Poligonoko plan partzialak zehazten dituenak izango dira”*

*40.1 Poligonoko Plan Partziala; Eraikuntzaren profilaren baldintzak, d) Ez dira solairuarteak baimenduko administrazio zerbitzutarako ez bada. Kasu hauetan, eraikuntzak hartzen duen azalaren %30 a hartu daiteke jabego horizontalaren zatiketarako aukerarik gabe.”*

Beraz eraikia dagoen eta eraikitzen den solairuarten azalerek gehienez **eraikinaren %30a hartuko dute.**

- JARDUERA SAILKATUA; 7/2012 LEGEA, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzeko-ak EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUGIROA BABESTEN DUEN OTSAILAREN 27KO 3/1998 LEGE OROKORRA ALDATZEKO VIII. KAPITULUA-n dioen modura, jarduera sailkatutzat hartzen ditu eta jarduera baimenera bideratzen, “7. Biltegitzeko, salerosketarako eta erakusketarako jarduerak eta instalazioak, toxiko, arriskutsu edo sugarri gisa katalogatuta dauden produktu eta materialak baldin badituzte (500 kg-tik gora, bizitegirako hiri-lurzoruan, edo 1.000 kg-tik gora, gainerako lurzoruetan).”

Aurkeztutako jardueran beste produktuen artean lejia 3000kg biltegitratuko direla adierazten da eta produktu hau toxikotzat hartzen da.

Beraz, QUISER S.L.k aurkeztu duen jarduera baimen hau jasotzeko **3/1998 Legeak jarduera sailkatuentzat zehazten duen prozedura jarraitu beharko da.** Udalak ezar ditzakeen baldintzen kalterik gabe, **Neurri Zuzentzaileak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ezarriko ditu.**

- LUR KUTSATUAK; Eusko Jaurlaritzeko Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko, ezarritakoa bete beharrari dagokionez zera adierazten da;

IHOBE S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak egindako EAEko lurzoruaren polutzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioan, QUISER S.L.k biltegi jarduera ezarri nahi duen lurzorua ez dagoela inbentariotua edo dokumentuan sartuta lur kutsatuak izan daitezkeen arriskuarekin. Hortaz, **ezarri nahi den jarduera berria, ez da lurzorua kutsa dezakeen jarduera jasan duen lursail batean kokatuko.**

**ONDORIOAK**

**Usurbilgo hirigintza arauen arabera jarduera eta kokapenaren**



Usurbilgo Udala

**egokitasunaren inguruan hirigintza txosten ALDEKOA idazten da. Horrekin batera, esan beharra dago, jarduera sailkatua izanik haientzat ezarritako izapidetzea jarraitu beharko dela.**

**Ohartarazten da, jarduerak ezinbestean bete beharko dituela Suteen Aurkako Babeserako neurriak.**

**Azkenik, gogorarazten da, eraikuntza egikaritzeko indarrean den araudia bete eta dagokion obra baimena jaso beharko dela. Obren baimena jaso aurretik solairuarten azalerak eraikinaren %30a baino gehiago hartzen ez duela justifikatu beharko da.**

Zure ezagupenerako eta bere ondorio egokietarako adierazten zaizuna.

Usurbilen, 2018ko urriaren 9an.  
UDAL ARKITEKTOA  
Izta.: Miren Dorleta Erausquin Alijostes

Aurkeztutako proiektua aztertu ostean, nekazaritza eta ingurumen teknikariak, Maite Garcia Azurmendi andereak, honako txostena eman du:

Lurzoruan eragina izango duen obraren atalak ez dago Eusko Jurlartizak definitzen duen lurzoru kutsatuen eremuan. Eta bertan ematen den jarduera ez da kutsakorra lurzoruari dagokionez.

Hala ere, lurzoru kutsatuen gertutasuna kontutan izanik ondorengo kontutan izatea eskatzen da: lurzoria kutsatuta egon daitekeenaren zantzurik izanez gero, 4/2015 legearen 23. artikulua 1.e atalak diona kontutan izatea. Hau da: Arriskua eragin ahal izateko adinako kontzentrazioetan lurzoruan substantzia kutsatzaileak daudelako zantzu oinarrituak badaude Udalarari eta Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari jakinaraziko zaio, hauek beharrezko pausoak abia ditzaten.


Laburbilduz, jarduera sailkatu honek EZ du LURZORU KUTSATUEN inguruko TXOSTENIK aurkeztu behar.

Maite Garcia Azurmendi  
Ingurumen eta Nekazaritza teknikaria

Udal teknikariaren txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** QUISER SL enpresak Zumartegi industrialdeko Errekalde kalea 9an ezarri nahi duen higiene eta garbitasun produktuen biltegi jarduerari ALDEKO INFORMEA EMATEA, proposaturiko kokamendua eta gainerako ingurutzatzaileak, egungo Planifikazio Urbanistikoekin eta Otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurugiroaren Babeserako 3/1998 Legeak xedatutakoarekin, ados daudelako.



Usurbilgo Udala

**BIGARRENA:** Era berean informatu, kokalekuan eta bere inguruetan efektu gehigarriak sor lezakeen antzeko jarduerarik ez dela.

**HIRUGARRENA:** Erabakia eta Espediente osoa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera bidali dadila, Neurri Zuzentzaileak ezar ditzan.

### **3.- 2020KO KULTUR EGITASMOAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

#### **Ikusirik**

2020ko urtarrilaren 7an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko dirulaguntza oinarriak argitaratu ziren eskaerak aurkezteko hogeit eguneko epea emanaz. Eskaerak aurkezteko epea 2020ko otsailaren 4an amaitu zen.

Abuztuaren 3ko Dirulaguntzen Batzorde orokorrak ebazpen proposamena egin zuen. Ebazpen proposamen hau 2020-08-19an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaizen alegazioak aurkezteko.

Epe horretan taldeek ez dute alegaziorik aurkeztu.

#### **Eta kontuan harturik**


1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
2. Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
3. Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (2020/01/20)
4. Usurbilgo udalak 2020. Urterako ezarri dituen hainbat dirulaguntza programen deialdi irekia.(GAO, 2020/01/07).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**Lehenengoa:** 2020an Kultur egitasmoak garatzeko dirulaguntza kopuru hauek onartzea eta dirulaguntzaren %75a ordaintzea.

|   | <b>Dirulaguntza</b> | <b>0,75</b> |
|---|---------------------|-------------|
| Alex Tello Arostegi (Zb. 14)                      | 1.918,00 €          | 1.438,50 €  |
| Jexux Artze Kultur Elkartea (Zb.17)               | 4.510,00 €          | 3.382,50 €  |
| Juan Luis Atxega Pagola (Zb.18)(Organoen Lagunak) | 2.455,75 €          | 1.841,81 €  |




Usurbilgo Udala

|  |                    |                    |
|--|--------------------|--------------------|
| Zubietako Eskolako Guraso Elkarte (Zb.19)                                | 2.075,00 €         | 1.556,25 €         |
| San Praixku Guraso Elkarte (Zb.21)                                       | 6.300,00 €         | 4.725,00 €         |
| Jexux Agirresarobe Arzallus (Zb.22) (Nafartarrak)                        | 2.185,00 €         | 1.638,75 €         |
| Hitz Aho edarregi ikastolako gurako Elkarte (Zb.23)                      | 1.239,00 €         | 929,25 €           |
| Bidean Agiñarron Herri Elkarte (zb.24)                                   | 1.855,00 €         | 1.391,25 €         |
| Eskola- Einean guraso Eskola (zb.25)                                     | 3.140,00 €         | 2.355,00 €         |
| Maria Dolores Maiz Belastegui (Zb.26) (Iriuri Abesbatza)                 | 401,43 €           | 301,07 €           |
| Maria Esther Ibarguren Arrillaga (Zb.27) (Usurbilgo Euskal Kantu Taldea) | 1.051,13 €         | 788,34 €           |
| Noaua! (zb. 28)  | 15.988,38 €        | 11.991,28 €        |
| Antxomolantxa (Zb.29)  | 4.303,50 €         | 3.227,63 €         |
| Itzalai Pikabea Atorrasagastia (Zb.30) (Usurbilgo Gure Esku dago)        | 1.757,50 €         | 1.318,13 €         |
| Orbeldi Dantza Taldea (Zb.31)  | 1.435,93 €         | 1.076,94 €         |
| Gipuzkoako Bertso zale elkarte (zb.32)                                   | 469,27 €           | 351,95 €           |
| Bihurri Txiki Ludoteka (Zb.33)   | 713,50 €           | 535,13 €           |
| Euskaaz Koop. E (zb.34)  | 788,50 €           | 591,38 €           |
| Santuenea Kultur Elkarte (Zb.35)   | 1.845,00 €         | 1.383,75 €         |
| Ziortza Gazte Elkarte (Zb.36)  | 7.177,50 €         | 5.383,13 €         |
| Zubigune Fundazioa (Zb.38)   | 2.600,00 €         | 1.950,00 €         |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>64.209,38 €</b> | <b>48.157,03 €</b> |


**Bigarrena:** Ekintza bakoitzari dirulaguntza hau dagokio:

|  |  |                |                      |             |
|--|--|----------------|----------------------|-------------|
|  |  | <b>Ekintza</b> | <b>Diru-laguntza</b> | <b>0,75</b> |
|--|--|----------------|----------------------|-------------|



Usurbilgo Udala


|  |    |   |            |            |
|--|----|---|------------|------------|
| Alex Tello Arostegi (Zb. 14)                         | 1  | Antzerkia "Birritan Bortxatua" (Aldatzen laguntzen) + Afalosteko kontzertua | 1.918,00 € | 1.438,50 € |
| Jexux Artze Kultur Elkartea (Zb.17)                  | 2  | "Zaldi Urdina" antzezlanak  | 4.510,00 € | 3.382,50 € |
|  | 3  | Oreka Tx taldearen kontzertua   | 0,00 €     | 0,00 €     |
|  | 4  | "Uztaritzetik Tolosan barru" dokumentala                                    | 0,00 €     | 0,00 €     |
| Juan Luis Atxega Pagola (Zb.18)(Organoen Lagunak)    | 5  | Donostiako Musika hamabostaldia (Organo kontzertua)                         | 1.600,75 € | 1.200,56 € |
|  | 6  | Donostiako Musika hamabostaldia (Organo kontzertua)                         | 299,25 €   | 224,44 €   |
|  | 7  | Donostiako Musika hamabostaldia (Organo kontzertua)                         | 555,75 €   | 416,81 €   |
| Zubietako Eskolako Guraso Elkartea (Zb.19)           | 8  | Estraeskolarrak   | 1.600,00 € | 1.200,00 € |
|  | 9  | Hitzaldi-Tailerrak  | 475,00 €   | 356,25 €   |
| San Praixku Guraso Elkartea (Zb.21)                  | 10 | Pintura eta eskulan ikastaroa   | 600,00 €   | 450,00 €   |
|  | 11 | Ipuin kontalaria  | 475,00 €   | 356,25 €   |
|  | 12 | Aginagako Eskola Eguna  | 2.850,00 € | 2.137,50 € |
|  | 13 | Euskararen Eguna  | 2.375,00 € | 1.781,25 € |
| Jexux Agirresarobe Arzallus (Zb.22) (Nafartarrak)    | 14 | Behe Nafarroa 1620-2020 Hitzaldiak  | 1.520,00 € | 1.140,00 € |
|  | 15 | Santo Tomas Azokako Kale girotzea   | 665,00 €   | 498,75 €   |
| Hitz Aho edarreki ikastolako gurako Elkartea (Zb.23) | 16 | "Zaintza eta familia orekan" hitzaldi sorta                                 | 240,00 €   | 180,00 €   |
|  | 17 | Ikastolako Kultur astea   | 570,00 €   | 427,50 €   |
|  | 18 | "Gazteen mugikorren erabilera" Hitzaldi solasaaldia                         | 150,00 €   | 112,50 €   |
|  | 19 | Filosofia matematiketan   | 279,00 €   | 209,25 €   |
| Bidean Agiñarron Herri Elkartea (zb.24)              | 20 | Parekidetasun tailerra. Ahalduntzea eta zaintza.                            | 50,00 €    | 37,50 €    |
|  | 21 | Gau Beltza: "Unidad Alavesa"+Beste bat                                      | 902,50 €   | 676,88 €   |
|  | 22 | Gau Beltza: "Asgarth"+ "Elbereth"+ "El Kinto kontenedor"                    | 902,50 €   | 676,88 €   |
| Eskola- Einean guraso Eskola (zb.25)                 | 23 | Pintura   | 600,00 €   | 450,00 €   |
|  | 24 | Eskulanak   | 600,00 €   | 450,00 €   |



Usurbilgo Udala

|  |    |   |            |            |
|--|----|---|------------|------------|
|  | 25 | Laboreak                                  | 300,00 €   | 225,00 €   |
|  | 26 | Eskulana, sormena eta moda diseinua.      | 400,00 €   | 300,00 €   |
|  | 27 | Oinarrizko argazkilaritza ikastaroa       | 1.240,00 € | 930,00 €   |
| Maria Dolores Maiz Belastegui (Zb.26) (Irrii Abesbatza)                  | 28 | Salbatore Parrokiaren Abesbatza zerbitzua | 401,43 €   | 301,07 €   |
| Maria Esther Iburguren Arrillaga (Zb.27) (Usurbilgo Euskal Kantu Taldea) | 29 | Euskal Kantu Ikastaroa                    | 322,00 €   | 241,50 €   |
|  | 30 | Kantu Jira                                | 729,13 €   | 546,84 €   |
| Noaua! (zb. 28)  | 31 | Inauteriak 2020                           | 3.325,00 € | 2.493,75 € |
|  | 32 | Euskarazko Film laburren emanaldia        | 632,70 €   | 474,53 €   |
|  | 33 | Plis Plas Txalo eta Jolas                 | 1.630,68 € | 1.223,01 € |
|  | 34 | Kulturaldia 2020                          | 7.800,00 € | 5.850,00 € |
|  | 35 | Euskarazko Pelikula emanaldiak            | 2.600,00 € | 1.950,00 € |
| Antxomolantxa (Zb.29)  | 36 | Ludotekako materiala                      | 350,00 €   | 262,50 €   |
|  | 37 | Gaztelekuko materiala                     | 665,00 €   | 498,75 €   |
|  | 38 | Olentzeroren etorrera                     | 304,00 €   | 228,00 €   |
|  | 39 | Gari, Montxo eta Joselontxo               | 1.520,00 € | 1.140,00 € |
|  | 40 | Magia Tailerra                            | 960,00 €   | 720,00 €   |
|  | 41 | Buruhandi tailerra                        | 210,00 €   | 157,50 €   |
|  | 42 | Ipuin musikatuak- Lur Usabiaga            | 294,50 €   | 220,88 €   |
| Itzalai Pikabea Atorrasagastia (Zb.30) (Usurbilgo Gure Esku dago)        | 43 | Tailer eta hitzaldiak                     | 475,00 €   | 356,25 €   |
|  | 44 | Erakusketa                                | 427,50 €   | 320,63 €   |
|  | 45 | “Hamaika gara” eguna                      | 855,00 €   | 641,25 €   |
| Orbeldi Dantza Taldea (Zb.31)  | 46 | lhauterietako dantza emanaldia            | 390,93 €   | 293,19 €   |
|  | 47 | Auzoetako dantza emanaldiak               | 665,00 €   | 498,75 €   |
|  | 48 | II. Dantzari Txiki                        | 380,00 €   | 285,00 €   |
| Gipuzkoako Bertso zale elkarte (zb.32)                                   | 49 | Usurbilgo Bertso eskola                   | 469,27 €   | 351,95 €   |
| Bihurri Txiki Ludoteka (Zb.33)   | 50 | Egunerokotasuna ludotekan                 | 400,00 €   | 300,00 €   |





Usurbilgo Udala

|                                   |    |   |                    |                    |
|-----------------------------------|----|---|--------------------|--------------------|
|                                   | 51 | Kontu Kantoi  | 313,50 €           | 235,13 €           |
| Euskaaz Koop. E (zb.34)           | 52 | 10. urteurren festa   | 788,50 €           | 591,38 €           |
| Santuenea Kultur Elkartea (Zb.35) | 53 | Argazki lehiaketa   | 380,00 €           | 285,00 €           |
|                                   | 54 | Gabonak   | 815,00 €           | 611,25 €           |
|                                   | 55 | Sukaldaritza tailerra   | 550,00 €           | 412,50 €           |
|                                   | 56 | Laboreak tailer txikia  | 100,00 €           | 75,00 €            |
| Ziortza Gazte Elkartea (Zb.36)    | 57 | Urteko saioak   | 712,50 €           | 534,38 €           |
|                                   | 58 | Elkarbizitza kurtso amaieran egiten dena                        | 50,00 €            | 37,50 €            |
|                                   | 59 | Kanpaldia Udaleku irekiak                                       | 4.800,00 €         | 3.600,00 €         |
|                                   | 60 | Kabalgata 2021  | 1.615,00 €         | 1.211,25 €         |
| Zubigune Fundazioa (Zb.38)        | 61 | Bio Ekonomina zirkularra, akuaponia eta Energia Berriztagarriak | 1.000,00 €         | 750,00 €           |
|                                   | 62 | "Arduino tailerrak ONLINE lantzen"                              | 1.600,00 €         | 1.200,00 €         |
|                                   |    | <b>GUZTIRA</b>  | <b>64.209,38 €</b> | <b>48.157,78 €</b> |

**Hirugarrena:** Udalak diruz laguntzen dituen ekintzak usurbildar guztiei irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.

**Laugarrena:** Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira ekintza guztiak.

**Bosgarrena:** Hondakinei dagokienez, Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.

**Seigarrena:** Dirulaguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da dirulaguntzarik emango.

**Zazpigarrena:** Eskatzaileen batek uko egingo balio bere eskaerari, ordainketa ez bideratzea.

**Zortzigarrena:** 2020ko urriaren 31 bitartean egindako ekintzak 2020ko azaroaren 13a baino lehenago zuritu behar dira.

Azaroa eta abenduko ekintzak, berriz, 2021eko urtarrilaren 8a baino lehenago zuritu behar dira.

**Bederatzigarrena:** Zuriketak egiterakoan, udalak onartutako gastu guztia zuritu behar da.



Usurbilgo Udala

**Hamargarrena:** Kultura Alorreko dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira:  
1.4000.481.334.00.03.2020 (A 6-2020)

**Hamaikagarrena:** Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**Hamabigarrena:** Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

**Hamahirugarrena:** Kontu-hartzailerari erabakia jakinaraztea, ordainketak bidera ditzan.

#### **4.- 2019/2020 IKASTURTEAN EUSKARA IKASI DUTENENTZAKO DIRULAGUNTZAK BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

##### **Ikusirik**

2020ko ekainaren 9an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2019/20 ikasturtean euskara ikasi dutenek dirulaguntzak eskatzeko deialdia argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 29an hasi eta uztailearen 10ean amaitu zen.

Epea amaitu ondoren, guztira 46 eskaera jaso dira.

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrek 2020ko abuztuaren 3an egindako bilkuran, ebazpen-proposamena egin zuen 2019/2020 ikasturtean euskara ikasi dutenentzako dirulaguntzen inguruan.


Ebazpen-proposamena abuztuaren 19an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, interesatuei hamar eguneko epea emanez alegazioak aurkezteko.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin-behineko ebazpenaren berri eman da.

Epe horretan hiru alegazio egin ditu Udalak ofizioz. Batetik, Oihana Eizagirre Ascarayk epe barruan egindako eskaera ez zen ebazpen proposamenean jaso, eta dirulaguntza jasotzeko baldintza guztiak betetzen ditu. Bestetik, Maria Jesus Larretari eta Karmele Liceagari dagozkien kopuruak egokitu egin dira, jasotako dokumentazioa berraztertu ostean. Hiruekin gainerakoekin erabilitako irizpide bera baliatu da kopurua zehazteko.

##### **Eta kontuan harturik**

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
2. Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
3. Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (2020/01/30).
4. 2018/19 ikasturtean euskara ikasi dutenek dirulaguntzak eskatzeko deialdia (GAO, 2020/06/09)




Usurbilgo Udala

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### ERABAKIA

**Lehenengoa:** 2019/20 ikasturtean euskara ikasi dutenentzako dirulaguntza kopuru hauek onartzea.

|    | <b>Izen abizenak</b>          | <b>Dirulaguntza</b> | <b>Oharrak</b>                                     |
|----|-------------------------------|---------------------|--|
| 1  | Silvia Alvarez Del Rincon     | 600,00 €            | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| 2  | Javier Espina Roman           | 600,00 €            | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| 3  | Ainara Bordagarai Iparragirre | 600,00 €            | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| 4  | Miren Josune Estella Arranz   | 600,00 €            | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| 5  | Beñat Aburuza Alduntzin       | 373,00 €            |  |
| 6  | Ana Arostegui Usobiaga        | 443,00 €            |  |
| 7  | Koro Aliri Aristiguieta       | 466,00 €            |  |
| 8  | Paulo Arrate Gomez            | 600,00 €            | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| 9  | Cristina Salinas Menendez     | 570,00 €            |  |
| 10 | Fatimetou Hamadi Rguebi       | 570,00 €            |  |
| 11 | Olaia Elizalde Isasa          | 575,00 €            |  |
| 12 | Cristina Herrera Rodríguez    | 570,00 €            |  |
| 13 | Esther Isasa Loyarte          | 570,00 €            |  |
| 14 | Ramón Carro Luengo            | 466,00 €            |  |
| 15 | Txelo Vidal Urdampilleta      | 600,00 €            | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| 16 | Aitor Villafila Illaramendi   | 600,00 €            | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| 17 | Francisca Navarro Guadix      | 71,36 €             |  |
| 18 | Eva Piñera Perez              | 188,00 €            |  |
| 19 | Xabat Beloki Segurola         | 575,00 €            |  |
| 20 | Nuria Larrañaga Rubio         | 415,00 €            |  |
| 21 | Isabel Torres Lara            | 443,00 €            |  |
| 22 | Amaia Labaien Rodriguez       | 102,50 €            |  |
| 23 | Amina Dar Rhaissa             | 570,00 €            |  |
| 24 | Daniel Brian Scott            | 600,00 €            | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| 25 | Yuly Janeth Gracia Mosquera   | 570,00 €            |  |
| 26 | Luis Jambrina Rodriguez       | 600,00 €            | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso. |
| 27 | Maria Marta Rizzo Montes      | 519,00 €            |  |
| 28 | June Larrea Granados          | 144,00 €            |  |



Usurbilgo Udala

|                |                               |                    |  |
|----------------|-------------------------------|--------------------|--|
| 29             | Gema Garcia Riñal             | 376,00 €           |  |
| 30             | Maria Aranzazu Rabano Rubio   | 524,00 €           |  |
| 31             | Edison M Fernandez Bustamante | 394,00 €           |  |
| 32             | Karmele Liceaga Alcantara     | 600,00 €           | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso.                               |
| 33             | Eduarne Izaguirre Pulido      | 600,00 €           |  |
| 34             | Maribel Mena Azpilaga         | 436,00 €           |  |
| 35             | Joana Amezaga Velasco         | 600,00 €           | 9. artikulua: Ezin da 600 euro baino gehiago jaso.                               |
| 36             | Jaione Eizagirre Muxika       | 575,00 €           |  |
| 37             | Maria Pilar Falagan Vazquez   | 600,00 €           |  |
| 38             | Miguel Angel Delgado Caminero | 466,00 €           |  |
| 39             | Miren Eduarne Albisu Múgica   | 575,00 €           |  |
| 40             | Nagore Sudupe Urquia          | 415,00 €           |  |
| 41             | Enara Lizaso Matxain          | 455,00 €           |  |
| 42             | Maria Jesus Larreta Altuna    | 267,00 €           |  |
| 43             | Dana Scarinci Zabaleta        | 570,00 €           |  |
| 44             | Rosa Zubeldia Telletxea       | 517,00 €           |  |
| 45             | Jonathan Garmendia Moreno     | 0,00 €             | 3. artikulua: 2020ko abuztuaren 31 bitartean egindako ikastaroak lagunduko dira. |
| 46             | Oihana Eizagirre Ascaray      | 575,00 €           |  |
| <b>GUZTIRA</b> |                               | <b>22.145,86 €</b> |  |

**Bigarrena:** Dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4200.480.335.00.01 2020 (A 733/2020)

**Hirugarrena:** Udalak diruz laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da dirulaguntzarik emango.

**Laugarrena:** Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.


**Bosgarrena:** Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

**Seigarrena:** Kontu-hartzaitzari erabakia jakinaraztea, ordainketak bideratu ditzan.

## 5.- 2019/2020 IKASTURTEAN AISIALDIKO IKASTAROETARAKO DIRULAGUNTZAK BEHIN BETIKO ONARTZEA.

### Ikusirik

2020ko ekainaren 9an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenenentzako dirulaguntza oinarriak argitaratu ziren. Eskerak



Usurbilgo Udala

aurkezteko epea ekainaren 29an hasi eta uztailaren 10ean amaitu zen.

Epea amaitu ondoren, 9 eskaera aurkeztu dira.

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrek 2020ko abuztuaren 3an egindako bilkuran, ebazpen-proposamena egin zuen aisialdiko ikastaroetarako dirulaguntzen inguruan.

Ebazpen-proposamena abuztuaren 2020-08-19an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, interesatuei hamar eguneko epea emanez alegazioak aurkezteko.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin behineko ebazpenaren berri eman da.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

#### **Eta kontuan harturik**

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
2. Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
3. Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (GAO 2020/01/30).
4. 2018/19 ikasturtean euskara ikasi dutenek dirulaguntzak eskatzeko deialdia (GAO, 2020/06/09)


Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

#### **ERABAKIA**

**Lehenengoa:** 2019/20 ikasturtean aisialdiko begirale/zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako dirulaguntza kopuru hauek ordaintzea.

#### **BEGIRALE IKASTAROA**

| <b>Izen-abizenak</b>        | <b>Dirulaguntza</b> |
|-----------------------------|---------------------|
| Maitane Aramburu Echarren   | 222,50 €            |
| Haritz Rekondo Atxega       | 222,50 €            |
| Ilargi Harto Flores         | 222,50 €            |
| Enara Egizabal Rekondo      | 222,50 €            |
| Jone Alduntzin Alegria      | 222,50 €            |
| Malen Lanz Garcia de Eulate | 0,00 €              |



Usurbilgo Udala

|                          |   |
|--------------------------|---|
|                          | 2018/19ko eskaera da (oinarrien 2. artikulua) |
| Ekia Arbizu Zabala       | 215,00 €                                      |
| Eider Goikoetxea Liceaga | 215,00 €                                      |
|                          | <b>1.542,50 €</b>                             |

### AISIALDIKO ZUZENDARI IKASTAROA

| Izen-abizenak          | Dirulaguntza |
|------------------------|--------------|
| Odei Guirado Irasuegui | 170,00 €     |

**Bigarrena:** Interesdunak 2022ko uztailaren 30a baino lehenago titulua eskuratu izanaren agiria ekarri behar du udalera. Titulua udalera ekartzen ez bada, udalari jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko zaio.

**Hirugarrena:** Dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1 4400 481 326 00 01 2020 (A 732/2020)

**Laugarrena:** Dirulaguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da dirulaguntzarik emango.

**Bosgarrena:** Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**Seigarrena:** Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

**Zazpigarrena:** Kontu-hartzaileari erabakia jakinaraztea, ordainketak bideratu ditzan.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:40etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**